


APIRILAREN 9KO 3/2025 FORU ARAUAK
PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO
ZERGAN EGINDAKO BERRITASUN NAGUSIAK,
Arabako Lurralde Historikoko zerga sistemaren
zenbait zerga eta beste foru zerga arau batzuk
berrikusteko.



III. TITULUA: FISKALITATE BERDEA

IV. TITULUA: GIZARTE AURREIKUSPENA

**V. TITULUA: GEHIKORTASUNA ETA EKOIZPEN
SAREA BULTZATZEA**



FISKALITATE BERDEA



60.2. art. BALORAZIORAKO ARAU BEREZIAK GAUZAZKO ERRENTAK

Ibilgailuak erabili edo ematearen balorazioa:

- Entrega: ordaintzailearen eskuratze kostua
- Erabiltzen badu: Eskuratze kostuaren % 20

BERRITASUNA

Aurreikusitakoaren ondorioz sortzen den balorazioa % 30ean murriztuko da ibilgailuen eta haien atoiaren kasuan, baita ziklomotor eta motozikletetarako ere, betiere ibilgailu elektrikoak badira.



87 ter art. KENKARIA ETXEBIZITZETAKO EFIZINTZIA ENERGETIKOA HOBETZEKO ETA ENERGIA BERRIZTAGARRIAK INTEGRATZEKO OBRENGATIK

% 15eko **kenkaria** obra/instalazio hauengatik ordaindutako kopuruetan:

- Berogailu eta hozte sistemen eskaria **murritzeko** obrak.
- Energia primario ez berriztagarriaren **kontsumoa hobetzeko** obrak.
- Birgaitze energetikoko obrak, bizitegi erabilerako eraikinen energia efizientzia hobetzeko helburuarekin.

Obra horiek zergadunaren ohiko etxebizitzan, edo ohiko etxebizitzarako alokatzen den eta bera titularra den etxebizitza batean egin behar dira.

87 ter art. KENKARIA ETXEBIZITZETAKO EFIZINTZIA ENERGETIKOA HOBETZEKO ETA ENERGIA BERRIZTAGARRIAK INTEGRATZEKO OBRENGATIK

Kenkari horren ondorioetarako, obra horietan barne hartzen dira:

- Energia berriztagarriak erabiltzea ahalbidetzen duten sorkuntzako ekipo hauen instalazioa:
 - Biomasa galdarak.
 - Aerotermia, hidrotermia eta geotermia sistemak.
 - Autokontsumorako eguzki instalazio fotovoltaiakoak eta eguzki instalazio termikoak.

Eguzki instalazio fotovoltaiako eta termikoen instalazioak instalatzearen parekoa da bazkide edo akziodun gisa, erakundeen funts propioetan partaidetza ekartzen duten akzioak eta partaidetzak erostea.
- Proiektu horien xedea etxebizitzaren energia efizientzia hobetzea izango da, banakako edo taldekako jarduketan bidez, betiere energia primario ez berriztagarriaren kontsumoaren % 30eko murrizketa gutxienez ekartzen badute, edo “A” edo “B” energia klasea lortzen badute.

87 ter art. KENKARIA ETXEBIZITZETAKO EFIZINTZIA ENERGETIKOA HOBETZEKO ETA ENERGIA BERRIZTAGARRIAK INTEGRATZEKO OBRENGATIK

Kenkariaren oinarriak obrek eta instalazioek ordaindutako kopuruak barne hartuko ditu.

Urteko gehieneko oinarri kengarria 20.000 eurokoa izango da.

Salbuetsita dauden dirulaguntzak jaso badira, kenkariaren oinarria jasotako **dirulaguntzen** zenbatekoan murriztuko da.

Kuota nahikoa ez izateagatik aplikatzen ez diren kenkariak hurrengo ondoz ondoko bost urteetan amaitzen diren zergaldietako aitorpenetan aplikatu ahal izango dira. Ekitaldi bakoitzak uzten duen gehieneko zenbatekoan aplikatu beharko da kenkaria, eta ezingo da egin 5 urteko gehieneko epetik kanpo..

Kenkari hori ez da bateragarria 87 eta 87 bis artikuluekin.

87 ter art. KENKARIA ETXEBIZITZETAKO EFIZINTZIA ENERGETIKOA HOBETZEKO ETA ENERGIA BERRIZTAGARRIAK INTEGRATZEKO OBRENGATIK


DOKUMENTAZIOA

- **Ekipoak:** zergadunaren erantzukizunpeko adierazpena eta instalatzailearen ziurtagiria.
- **Ekipamendu fotovoltaikoak:** Instalazio elektrikoaren ziurtagiria (CIE)
- **b letran aurreikusitako proiektuak:** etxebizitza edo eraikinaren energia efizientziaren ziurtagiria, eskumeneko teknikariek obrak egin aurretik eta amaitutakoan egindakoa.

Aurreko guztietarako: obra eta instalazioetan inbertitutako kopuruei **dagozkien fakturak**.

Ez dute emango kenkari hori egiteko eskubiderik ekonomia jarduerak garatzeko inbertitutako kopuruek.

Kenkaria egin dela egiaztatzen duten ziurtagiriak dauden zergaldietan egingo dira kenkariak.



87 quater art. KENKARIA INGURUMENA ERRESPETATZEN DUTEN IBILGAILU JAKIN BATZUK ESKURATZEAGATIK.

% 5eko **kenkaria** ibilgailu berri baten eskurapen-balioan, hauetako edozein kategoriatan: M1 autoak, kuadrizikloak eta motozikletak.

Motor elektriko propulsatutako ibilgailuak badira, ibilgailu elektriko gisa homologatutakoak, BEV, REEV, FCV eta FCHV siglekin ezagutzen direnak.

Ezin dira egon jarduera ekonomiko bati lotuta.

Aurreneko matrikulazioa Espainian egina eduki behar dute, zergadunaren izenean.

% 10eko **kenkaria** ibilgailu berri baten eskurapen-balioan, betiere aurreko baldintzak betetzen badira, eta horrez gain, bere jabetzako ibilgailu bat txatar bihurtu badu eta zirkulazioan behin betiko baja eman badio.



87 quater art. KENKARIA INGURUMENA ERRESPETATZEN DUTEN IBILGAILU JAKIN BATZUK ESKURATZEAGATIK.

Kenkari horren oinarria ibilgailuaren eskuratze balioa da, eskuratzeak eragindako gastuak eta zergak barne.

Gehieneko oinarria 10.000 izango da motozikletetarako, eta 40.000, ibilgailuetarako.

Dirulaguntzak jaso badira, kenkariaren oinarriari kenduko zaizkio.

Errentatzaileak egindako alokairua eskuratzetzat hartuko da.






87 quinquies art. IBILGAILU ELEKETRIKOAK KARGATZEKO TOKIAK INSTALATZEAGATIKO KENKARIA.

% 15eko **kenkaria**, zergadunaren jabetzako finka edo garaje komunitarioan bere jabetzako eta norberaren helburuetarako erabilitako ibilgailu elektrikoen kargatze puntuak instalatzeko ordaindutako kopuruan.

Instalazio horrek, indarreko legediak ezarritako baimenak izan beharko ditu.

Kenkari oinarria 5.000 euro izango da gehienez instalazio bakoitzeko, eta instalazioa amaitzen den zergaldian aplikatuko da.

Aplikatzeko, faktura aurkeztu beharko da. Zerga oinarriari kenduko zaizkio jasotako dirulaguntza salbuetsiak, eta ordaindutako zenbatekoa gehieneko kengarria baino handiagoa bada, kenkariaren oinarria hainbanatuko da.



GIZARTE AURREIKUSPENA

Egungoa

Errenta gisa jasotako
prestazioak:

%100ean lan etekin gisa
integratzen dira.

2026/01/01az geroztik

Errenta gisa jasotako prestazioak:

1. Finantza etekinei dagokien prestazioaren zatia, **kapital higigarriaren** etekin izatera pasatzen dira (37 e. art.), eta salbuetsita geratzen dira, jasotako prestazioaren % 40ko mugarekin.
2. Ekarpenei eta kontribuzioei dagokien zatia % 100ean integratzen da, **lan etekin gisa**.

Egungoa

Kapital gisa jasotako prestazioak:

Kontingentzia bakoitzarengatik jasotako lehen prestazioa; % 60ean integratzen da, **lan etekin gisa**.

Bigarren prestazioetarako eta hurrengoetarako, prestazioak % 100ean integratzen dira

2026/01/01az geroztik

Kapital gisa jasotako prestazioak:

Kontingentzia bakoitzarengatik jasotako lehen prestazioa:

1. Finantza etekinei dagokien prestazioaren zatia, kapital higigarriaren etekin izatera pasatzen dira (37 e. art.).
2. Ekarpenei eta kontribuzioei dagokien zatia % 70ean integratzen da, lan etekin gisa. Bigarren prestazioetarako eta hurrengoetarako, prestazioak % 100ean integratzen dira.

Hogeita hamaikagarren XEDAPEN IRAGANKORRA, KAPITAL GISA JASOTAKO PRESTAZIOEI APLIKATZEN ZAIENA



2026ko urtarrilaren 1 baino lehen egindako enpresa ekarpen eta kontribuzioetatik etorritako prestazioengatik, **honako hau aukera daiteke:**

- Gaur egun aurreikusitako araubidea aplikatzeagatik:

Hauxe integratzen da: % 60ean, lan etekin gisa, lehen prestazioa, eta % 100ean, bigarrena eta hurrengoak.

- Aurreikusitako araubidea 2026/01/01az geroztik aplikatzeagatik:

Hauxe integratzen da:


Finantza etekinari dagokion zatia, kapital higigarriaren etekin gisa.

Ekarpenei eta kontribuzioei etekin gisa dagokien zatia % 70ean integratzen da lehen prestazioa, eta % 100ean, bigarrena eta hurrengoak.

Xedapen honetan aurreikusitako araubidea aplikatzeko aukera errentaren aitorpena aurkeztean egingo da.

Kapital higigarriaren etekin gisa kalifikatzen diren etekinak aurrezkiaren errentaren zati dira.

Lan etekin gisa kalifikatzen diren etekinak errentaorokorraren zati bat dira.



Gizarte aurreikuspeneko sistemetara egiten diren ekarpen eta kontribuzioengatik aplikatzen diren murrizketen mugak. (2026/01/01)

Ezartzen diren finantza mugak gora behera, gizarte aurreikuspeneko sistemetara egiten diren ekarpenengatik eta kontribuzioengatik aplikatzen diren murrizketak hauek izango dira:

1. **5.000 euro**, gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako **ekarpenetarako**, bazkideek, partaideek, mutualistek edo aseguratuek egindakoak.
2. **8.000 euro**. bazkide babesleek, sustatzaileek, gizarte aurreikuspeneko tresna gisa jarduten duten gizarte aurreikuspeneko mutualitateek egindako **enpresa kontribuzioengatik**, eta bazkideek, partaideek, mutualistek edo aipatutako gizarte aurreikuspeneko sistemetako aseguratuek egindako **ekarpenengatik**, baldin eta **negozio kolektiboan** adostu badira, edo **langile batek erabaki badu**. Enpresaburu indibidualaren edo profesionalaren ekarpenak, aldi berean sustatzailea eta partaidea den enpleguko pentsio planetara egindakoa.
3. **4.000 euro**, bere konturako langileek edo langile autonomoek partaide edo osoko bazkide gisa gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpenetarako.




Gizarte aurreikuspeneko sistemetara egiten diren ekarpen eta kontribuzioengatik aplikatzen diren murrizketen mugak. (2026/01/01)

Hori guzti hori gorabehera, 10.000 euroko muga egongo da murrizketak egiteko enpresek gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpen eta kontribuzioengatik.

Zergaldian enpresa ekarpenak eta kontribuzioak egiten badira, lehendabizi, enplegu sistemetara egindako ekarpenei eta kontribuzioei dagozkien murrizketak aplikatuko dira; ondoren, enpleguarenak ez diren sistemetarako egindako ekarpenak.





Kenkaria borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetan dauden lehentasunezko gizarte aurreikuspeneko planetara egindako ekarpenengatik (2025/01/01)

Zergadunek **ekarpenak** egiten badizkiete lehentasunezko gizarte aurreikuspeneko planetara, kenkaria aplikatu ahal izango dute zergaren kuota osoan, baldintza hauekin:

- Egindako ekarpenen eta kontribuzio enpresarialen guztirako zenbatekoa entitate enplegatzaileak urtean ordaindutako soldata gordinaren % 3 edo gehiago eta % 5etik beherakoa bada, kenkaria % **15ekoa izango da**.
- Egindako ekarpenen eta kontribuzio enpresarialen guztirako zenbatekoa entitate enplegatzaileak urtean ordaindutako soldata gordin osoaren % 5 edo gehiago eta % 8tik beherakoa bada, kenkaria % **20koa izango da**.
- Egindako ekarpenen eta kontribuzio enpresarialen guztirako zenbatekoa entitate enplegatzailearen % 8 edo gehiago bada, edo zergaduna 36 urtetik beherakoa bada, kenkaria % **25ekoa izango da**.
- Hogeita hamazortzigarren xedapen gehigarriaren arabera, 2025 - 2029 ekitaldietan aplikatzekoa dena, ekarpen eta kontribuzio enpresarialen guztirako zenbatekoa erakunde enplegatzailearen urteko soldata gordina baino % 3 txikiagoa bada, kenkaria % **10ekoa izango da**.



Kenkaria ekarpenak egiteagatik borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetako lehentasunezko gizarte aurreikuspeneko planetara (2025/01/01)

Kenkariaren oinarria hauxe izango da: zergadunak negozioazio kolektiboaren ondorioz egindako ekarpenen batura, hain zuzen ere zerga oinarria murriztu duten ekarpenen batura.

Kuota osoa nahikoa ez izateagatik aplikatzen ez diren kenkariak hurrengo ondoz ondoko bost zergaldietako aitorpenetan aplikatu ahal izango dira.






Kenkaria partaideak edo oso bazkideak besteren konturako langileak edo langile autonomoak diren enpleguko aurreikuspen sistemetara egiten diren ekarpenengatik, eta kargurako langilerik ez duten besteren konturako langile autonomoek enpleguko gizarte aurreikuspeneko sistemetara egiten dituzten ekarpenengatik. (2025/01/01))

Osokoak diren partaideak edo bazkideak besteren konturako langileak edo langile autonomoak diren zergadunek enpleguko gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpenek % 10eko kenkaria aplikatzeko eskubidea izango dute zergaren kuota osoan.

Kenkariaren ehuneko hori % 15ekoa izango da zergadunak 36 urtetik beherakoak badira.

Kenkariaren oinarria hauxe izango da: zerga oinarria murriztu duen zergadunak egindako ekarpenen batura.

Kuota osorik ez izateagatik aplikatzen ez diren kenkariak hurrengo ondoz ondoko bost zergaldietako aitorpenetan aplikatu ahal izango dira.



GEHIKORTASUNA ETA EKOIZPEN SAREA BULTZATZEA.



9.5. art. Salbuetsita dagoen 180.000 euroko muga 183.600 euro arte handitu da langilea kaleratzearen edo lanpostu uztearen kalte-ordainetarako. Muga hori hori nahitaez ezarrita dago Langileen Estatutuan edo epai bidez (ez du eraginik adostutako kaleratzeetan).

23. art. Lan etekinaren hobaria handitu da

Lanaren etekin osoaren eta gastu kengarrien arteko diferentzian hobari hau aplikatuko da:

- Etekin garbia 14.800 euro baino txikiagoa bada, 8.000 euroko hobaria.
- Etekin garbia 14.800,1 eta 23.000 euro artekoa bada, 8.000 euroko hobaria aplikatuko da. Horri, etekin garbiaren eta 14.000 euroen arteko kendura 0,6098rekin biderkatuz ateratzen dena kenduko zaio.
- Etekin garbia 23.000,01 euro baino handiagoa bada, 3.000 euroko hobaria aplikatuko da.



41.c. art. Ondarean ez dago ez irabazirik ez galerarik.

Enpresen irabazizko eskualdaketen edo ondarearen gaineko zergaren 6. artikuluko 1-6 puntuetan adierazten diren erakundeetako partaidetzen kasuan, hauek izango dira baldintzak:

- Eskualdatzaileak zuzendaritza lanak egin izan baditu, eskualdaketa unetik **bi urte igarotakoan** lan horiek egiteari eta haien ordainsariak jasotzeari uztea.
- C) letran aurreikusitakoa eskualdaketa bakarrean aplikatuko da, zergadunaren entitate bakoitzeko.

76. art. Aurrezkiaren likidazio oinarriari aplikatzeko eskala.

Eskala aldatu da: tarteak handitu eta tasa handiagoak aplikatzen dira zerga oinarri altuetan. Horrela, aurrezkiaren likidazio oinarriaren 300.000 eurotik gora % 28era heltzen da..





102. art. AUTOLIKIDAZIOA EGIN BEHARRA

Ez dute aurkeztu beharko zergaren autolikidaziorik honako hau bakarrik lortzen duten zergadunek:

- **20.000 euro baino txikiagoak diren urteko lanaren etekin gordinak.** Baterako tributazioan, muga hori zergadun bakoitzarekin aplikatzen da.
- **Kapitalaren etekina gordinak eta ondare irabaziak,** gehienez, 1.600 eurokoak.





BESTE NEURRI BATZUK

2025/01/01az geroztik eragina izanda


27.5 artikulua jardueran ibilgailuak erabiltzeagatik gastu kengarria kalkulatzeko erabilitako kopuruen balioak eguneratzen ditu.

2026/01/01az geroztik eragina izanda

28. art. Etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate erraztuaren bidez kalkulatzeko arauak.

Diru-sarrera eta gastuen arteko aldea kalkulatu, eta eragiketa horren emaitza amortizazioak, narriaduragatik galerak eta justifikatzeko gaitzak diren gastuak direla eta dagokion ehunekoan murriztuko da:

- Sarrera eta gastuen arteko aldea 35.000 eurotik beherakoa bada, % 20 murriztuko da.
- Sarrera eta gastuen arteko aldea 35.000 eurotik gorakoa eta 85.000 eurotik beherakoa bada, % 15 murriztuko da.
- Sarrera eta gastuen arteko aldea 85.000 eurotik gorakoa bada, % 10 murriztuko da.



2026/01/01az geroztik eragina izanda

Etekin hauen kalifikazioa aldatuko da, eta laneko etekintzat hartuko dira:

- Ikastaroak, hitzaldiak, solasaldiak, mintegiak eta antzekoak ematearen ondoriozkoak.
- Literatura, arte edo zientzia lanak egitearen ondoriozkoak, betiere ustiatzeko eskubidea uzten bada.

Hala ere, etekin horiek lortzeko, zergadunak bere ekoizbideak eta giza baliabideak, edo horietarik bat, bere kasa antolatzea, helburutzat ondasun edo zerbitzuen ekoizpenean edo banaketan aritzea ekartzen badu, horiek ekonomia jardueren etekin gisa hartuko dira.

